

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

HM NEGUKO KONTZERTUA

2020ko otsailaren 8an - 18:30 - Auzokalte elkartea - 5 euro

BALEN LPEZ. DE MUNAIN & PAOLA ZANNONI

(*Euskal Herria*)



Balen Lopez de Munainek Bilboko Juan Crisóstomo Arriaga Kontserbatorioan gitarra ikasketak egin zituen, eta ondoren hasiera eman zion bere ibilbide artistikoari.

Sustraiak tradizioan dituen musikaz eta etnojazzaz interesaturik, hainbat artistarekin ibili da lankidetzan: Antonio Breschi (Italia) piano jotzailea, zeinarekin hainbat grabaketa (Al Kamar, Orekan eta Irish portrait diskoak) eta bira egin baititu, edo eta Jamal Ouassini biolin jotzaile marokoarra eta Zyriab talde multietnikoa.

Laurogeita hamarreko hamarkada erabakigarria da berak idatzitako jatorrizko musikak oinarri dituen proiektu batean zentratzeko. Garai hartan hirukote bat osatu zuen Sergio Candotti (Trieste) baxu-jotzailearekin eta angolar jatorrizko Mario N'Goma perkusio-jotzailearekin. Orduan hainbat bira egin zituen Europan zehar, eta bere lehen diskoa, *Laberintoa* (1995), grabatu zuen. Disko hartan nabarmentzekoa da Kepa Junkeraren parte hartzea.

Laurogeita hamarreko hamarkada amaitzean eta XXI. mendearen hasieran euskal kulturarekin lotuagoa dagoen erreperitorioa landu zuen, eta laukote bat osatu zuen musikari hauekin: Salvatore Maiore (Sardinia), kontrabaxua eta biolontxelo; Geoff Warren (Ingalaterra), flauta eta saxo sopranoa eta Joxan Goikoetxea (Euskal Herria), akordeoia. Ordukoa da *Lotuneak* (2005) diskoa. Diskoa etnojazza eta folk musiken jaialdi garrantzitsuenetan aurkeztu du.

Gitarra jaialdi askok gonbidatu du eta jo izan duen guztietan bere erreperitorioaren originaltasuna azpimarratu dute, baita erreperitorioan euskal konpositoreek daukaten presentzia nabarmena txalotu ere.

Paola Zannoni biolontxeloan graduatu zen Vicenzako Kontserbatorioan eta flauta ez-tian Londoneko Royal College of Music-en.

Urtetan Antzinako Musikaren alorrean aritu da lanean flauta ez-tia eta biolontxelo barrokoa joaz.

Musika pedagogian espezializatu da eta bere kurrikulumean haurrei zuzendutako ekoizpen ugari ditu.

Veronako Evaristo Felice Dall'Abaco Kontserbatorioan jazza ikasi zuen Inprobisazioan eta Jazz Biolontxeloan Gradua eskuratu.

Ugariak dira oso italiako jazz musikan, latinoan, etnojazzean edota hari laukotean izan dituen parte hartzeak.

Gaur egun musika hezkuntzako irakaslea da Verona probintziako bigarren hezkuntzako estatu eskolan.



GWILYM RHYS & ELIDYR GLYN

(Gales)



Gwilym Bowen Rhys Galesko ipar mendebaldeko Snowdon mendiaren magalean sortua da, Bethel izeneko herrixkan.

Bere jaioterriko galeseraz kantatu izan du betidanik eta lotura sakona garatu du bere lurraldeko abesti eta musika tradizionalekin.

Bere musika lehengo eta oraingo musiken nahasketa da, antzinako galeszko letrak eta doinuak berreskuratuz, bere ikuspegi musikal progresibora egokituz.

2019an “bakarkako artista onenaren saria” irabazi zuen Galesko folk sarietan, eta mundu osoan zehar jotzen arihua da.

O Groth y Ddaear (Lurraren sabeletik) bere lehen diskoa 2016an kaleratu zen eta National Eisteddfod-en “urteko galeszko album onena” aukeratu zuten.

2018an balada zaharren grabaketan lehena kaleratu zuen, eta 2019an, bere hirugarren diskoa *Arenig* argitaratu zuen.



**kontzertu honen
laguntzaileak:**

AUZOKALTE
ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA

**ETA
GOIZEAN**

EMANALDI DIDAKTIKOA
Galesko herri musika

Lekua: SOINUENEA

Eguna: 2020-02-08

Ordua: 11:30

Haurrek beraien senide eta lagunekin leku ezber-

dinetako musika ezagutzeko aukera izan dezaten antolatu dugun kontzertu honetan **Gwilym Bowen Rhys** galestar musikariak bere lurraldeko abestiz osatutako kontzertu labur bat emango du.